

GIL 50 Jaizkibealeko Eozenoko flyscha Arandoaundia muturrean



Arandoaundi muturreko seriearen ikuspegia Plata itsasargitik.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 20' 7,71 '' N

Long.: 1° 55' 35,69'' W

- **UTM koordenatuak:**

X: 587.015,53 m

Y: 4.798.629,09 m



Nola iritsi

Pasaia herritik, pasealekutik ibili behar da Arandoaundi puntaraino.



Arandoaundi muturreko sekuentzia turbiditiko, higadura-forma deigarriak ikusten direla.

GILaren deskribapen laburra

Pasaiaiko itsasadarraren bokalearen eskuinaldearen ertzean Arandoaundi puntaraino doan pasealekuak Jaizkibel formazioaren parte garrantzitsu bat ebakitzen du; formazio hori matrize tupatsu pelagiko batean tartekatutako Eozenoko turbidita siliziklastikoz eratuta dago gehienbat. Serieak antolaera monoklinala du; E-W norabidea du, gutxi gorabehera, eta 60°-ko okerdura, batez beste, hegoaldera.

Turbiditen lodiera handituz joaten da seriean aurrera egin ahala. Pasaiaiko zonan, geruza gehienak ez dira 30 cm baino lodiagoak; Arandoaundi puntan, berriz, 2 metrotik gorako lodierako turbiditak ikus ditzakegu.

Ebakian zehar, barne-xafladuren adibide onak ikus ditzakegu, hala paraleloak nola konbolutoak, bai eta *dish* egiturak ere, ur-iheseakoak.

Ebakiaren amaierako partean, nabarmenak dira hareharrien higadura-forma ikusgarriak, zementu karedunaren banaketa irregularrean haizeak eragindako higadurak sortuak. Tafoni deritze egitura horiei; sare bitxiak eratzen dituzte, erlekumeen edo albeolo-sorten antzekoak.

Behatzeko punturik onena

In situ, azalerratze osoa zeharkatzen duen pasealekuan zehar ibiliz. Plata itsasargitik —portu-ahoaren beste aldean dago—, multzoaren ikuspegi interesgarri bat dago.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 99, GIL 115, GIL 77, GIL 136.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 48, GIL 49, GIL 89, GIL 115, GIL 132, GIL 135.



Turbiditek egitura sedimentario ikusgarri asko dituzte.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa		●		
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa			●	
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:	Zonak badu interes geomorfologikoa ere, estratifikazioak labarren morfologian duen kontrol estrukturalagatik; hala ere, fenomeno horren garrantzia dela eta, GIL 99an tratatu da. Tafoni motako higadura-formak hareharrian.				

Bibliografia espezifikoa

- EEEn mapak.